

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren helburua segurtasuna hobetzea eta guztion esku jartzea denez, pertsona guztientzako eskuragarria eta erabiltzeko erraza den produktu bat ekoizteaz ziurtatu nahi dugu, bizitzaren arlo desberdinetan erabili ahal izango dena.



Aipatu bezala, gure ideia mota guztietako bezeroetara heltzea gustatuko litzaiguke. Hori dela eta, adin txikikoentzako zein nagusientzako giltzarrapo-mota ezberdinak aurkeztuko ditugu, bakoitzaren nahietara edo gustuetara moldatzeko. Hori lortzeko, kolore edota tamaina ezberdinetako giltzarrapoak egitea pentsatu dugu.

Honetatik aparte, gure giltzarrapoaren diseinu bereziak egongo dira umeentzako, gazteentzako eta nagusientzako, etxeko guztien gauzak seguru egoten ahalbidetuko dutenak haiei bereziki zuzendutako diseinuekin.

Umeei eta gazteei zuzendutako diseinu bereziak egoteaz aparte, pertsona helduentzat bereziki direnak ekoiztuko ditugu ere bai. Azken hauetan bista-arazoak dituzten pertsonen bizitza errazteko hatzamarra jarri behar den puntua argiz adierazita egongo da.

